

Euskararen zonifikazioa EAEko hezkuntzan



MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Eusko Legebiltzarrak legez ezarri du, Jaurilaritzaren proposamenez, euskararen zonifikazioa EAEko hezkuntzan. Hauxe dio 4/2018 legearen 27. artikulua:

“3. Hizkuntza-plangintza orokorrarekin koordinatuta egingo da lanbide-heziketako hizkuntza-plangintza, eta, haren barruan, euskarazko lanbide-heziketa bermatuko da, kontuan hartuta, lehen-tasunez, honako hauek: zer-nolako eskaera eta errealitate linguistikoa dagoen dena delako ikastetxearen inguruko hezkuntza-etapa bakoitzean, zein den eremu horretako egoera linguistikoa eta, zehazki, zein diren ikastetxe horretan eskaintzen den lanbide-heziketaren berezitasunak eta helburuak”.

Hirugarren atala da goiko hori. 2. atalean, Jaurilaritzak konpromisoa hartzen du “planifikazio bati jarraituta” D eredua zabaltzeko eta B eredua ezartzeko. 2018an! Ez zuten ba ereduak gaindituko dituen hezkuntza-legea agindu 2019rako? (Bide batez: eskerak oraingoan ere sailburuak horretan kale egin duen).

Gauzak are gehiago okertzeko, Hezkuntza Saila B eredua ari da bultzatzen lanbide-heziketan. Baita goi-mailakoan ere. Gogoratu goi-mailako zikloetako plazen %60 batxilergoa amaitutakoei gordetzen zaizkiela

Asmo onak alde batera, gauza jakina da D ereduak atzera egin duela EAEko lanbide-heziketan. Hona hemen matrikula-datu ofizialak:

Erdi mailako LHn (DBHko ikasketak amaitutakoan egin ohi dena), ikasleen %22,79 D ereduari 2013-14 ikasturtean; ikasleen % 20,76 2018-19an.

Batxilergoa edo erdi-mailako zikloa amaitutakoan egin ohi den goi-mailako LHn, D ereduari zegoen ikasleen % 26,31 2013-14an; % 23,86 iaz.

Denbora-tarte berean, batxilergoko D ereduiko ikasleen ehunekoa sei puntuan hazi da; DBHkoena zortzian. Sinetsi behar dugu ikasleei mantendu egiten zaiela eredua institututik lanbide heziketara igarotzen direnean?

Gauzak are gehiago okertzeko, Hezkuntza Saila B eredua ari da bultzatzen lanbide-heziketan. Baita goi-mailakoan ere. Gogoratu goi-mailako zikloetako plazen %60 batxilergoa amaitutakoei gordetzen zaizkiela. Benetan sinetsi behar dugu batxilergoko D ereduiko ikasleak %63 izanik, eta goi-mailako zikloetakoak %26 baino ez, ikasleei errespetatu egiten zaiela eredua aukeratzeko duten eskubidea? Benetan? Bada, nik ez dut sinisten. Zalantza egiten duenari, hauxe erronka: har dezala lanbide-heziketako zikloen zerrenda, hizkuntza-eredu eta guzti argitaratzen dena, eta begira dezala zein den euskarazko eskaintza, eta zein gaztelaniazkoa. Baina kasu! Ez ekainean matrikula egiteko orduan argitaratzen den eskaintza, baizik eta irailean benetan osatzen diren taldeena, aldea baitago. Euskaldunon kalterako aldea, jakina. ●

Irun Hiriko Kutxa Literatura Sariak



Txema Garcia-Viana
PENTAEDROA



ARITZ GORROTXATEGI
Amua

elkar

www.elkarargitaletxea.eus